

Mikel Zurloano

EHUKO IRAKASLEA

## Izotzaldia

**E**uroa eta euroguneko herrialde periferikoak *laguntzeko* duela urte eta erdi NMFk eta Europako Batasunak (EB) abian jarritako doikuntza politikek porrot egin dute. Austeritate politikak aktibatu dituzten herrialdetan ez da iragarritako defizitaren eta zor publikoaren kontrola gauzatu. Aldiz, politika horien neurri fiskal murriztaileek ekonomia atzeraldia berpiztu egin dute herri horietan ez ezik Europa osoan. Europako merkatuan bere esportazioen hiru laurdenak saltzen dituen Alemania ere ukitu egin du atzeraldiak. Doikuntza politiken porrotak eta Europako Batasuneko ahultasun politikoak euroa bera eta Europako finantzak kinka larrian utzi dituzte.

EB eta eurogunearen esparru eta garapen eta lankidetzaren instituzionalaren aldaketa sakona ezinbestekoa da etorkizunean egonkortasuna irabaz dezan. Batzuentzat bidea integrazio fiskala, Europako Altxor bakarra sortzea, eta elkartasun ekonomikorako mekanismoak indartzea da, besteak beste. Beste batzuentzat –Alemania eta Frantziarentzat– eurogunearen zatiketa da jorratu behar den bidea. Baina, epe laburrean euroa bera dago jokoan eta bertako finantza egonkortasuna. Alemaniako botereguneko sektore ortodoxoenek Europako Banku Zentralarekiko jarrera



DANI BILANCO

malgutzeko prest dauden (artikulu hau argitara eman orduko) jakin(go) dugu ostiral honetan bertan. Europako Finantza Egonkortasunerako Fondoaren kopurua gehitzeko zailtasunak tarteko, EBZ da gaur egun suhiltzailearen funtzioa bete dezakeen bakarra. Eragile gehienek aipatzen dute epe laburreko soluzio erraz eta eraginkorra EBZk bonoak jaulkitzea dela alegia. Baina aukera hori Alemaniak ez du onartzen eta badirudi zeharkako bide bat erabiliko dela: EBZk NMFri maileguz ematea gero azken honek fondo horiek Europako herrialdeetara biderra ditzan. Jakina da NMFren kudeaketa indartu honek lehengo lepotik burua ekarriko lukeena batez ere Alemaniak eurogunean ezarri nahi dituen mekanismo fiskal zorrotzagoak –defizit zero eta hori betetzen ez duenarentzat zigor automatikoa– abian jarriko badira.

Nolanahi ere, Alemania bera ere ataka larrian dago, hautu gogorra eginez gero bere bankuek utzitako maileguak berreskuratzea zaila suertatuko baitzaie. Areago, bere menpekota den Europako merkatuak hondoa jo lezake eta horrekin Alemaniako esportazioek ere. Honenbestez, Europako ekonomia hoztua izozteko arriskua bistakoa da. ■

«  
Alemania bera ere ataka  
larrian dago, hautu gogorra  
eginez gero bere bankuek  
utzitako maileguak  
berreskuratzea zaila  
suertatuko baitzaie  
»



## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



betea oso igaro duguna. Ostiral gauetz, Miarritzen presoan aldeko arratsa izan genuen, argazkigintza eta Herrialde Berdea dokumentala ikusgai. Lagunak ikusteko parada, dispersioaren latza ezagutzen ez duen inor ez zegoen, baina nago Iharra, Xenki, Mikelon militanteen berri ez zuten gazte andanak ikasi zuela garai bateko borrokek gazte haiengan izan zuten eragina, Hibaí Castroren filmak gordinki erakutsi ziguna. Eta bestetan ez bezala, frantsesezko azpitoluz hornitua. Biharamun goizean ABren batzarra izan genuen ohi bezala Uztaritzen. Bezperan beste jendez ospa-

### Asteburu

tuak, bateratze haizeak ekarri zion giroari. Ez nuen Miarritzeko lagunik bertan ikusi, elez helburu berek gidatzen gaituztenak elkarrengandik urrunegi gaudenaren seinale. Ez dugu zeregin makala gure aitzinean fundamentuzko zerbait egingo badugu. Igandean Hernaniko Galarretara ezagutzen ez dugun Gpuntua aitzaki. Miarritze eta Uztaritze baturik hamar halako jendez beterik. Epaimahaiaren iritzi Apalategik irabazi zuen, nik bere azken agurrean Realaren garaiaren berri eman izana eskertu nion, nahiz eta Anoetatik lagun minen mezuek lasaitua ninduten. Orain Durango. ■

